

## 1.go Gaia: **IKERKETA PROZESUA**

### **EZAGUTZA LORTZEKO BIDE EZBERDINAK:**

Intuizioa: Aprioristikoa, datu ez enpirikoetan oinarrituta

Tradizioa: esperientzia zuzenean oinarritu gabe da, horrela da beti izan delako eta honen bitartez bizitza soziala errazten da ikasitako arauak ez direlako kuestionatzen.

Autoritatea: Ezagutzaren legitimazioa iturrian oinarritzen da, ez metodoan.

Zientzia: behaketa, arrazoa eta sistematikaren arteko gehiketa bat da, behaketaren eta arrazoiaren bitartez lortutako ezagutza multzoa sistematikoki egituratua dena eta zeinetatik printzipio eta lege orokorrak atera daitezkeen. Produktua ezagutza zientifikoa da, egia eta errealitatearen benetako portaera ulertzea bilatzen du era arrazional eta kritiko batean, sistematikoa eta zehatza da. Metodo hau erabiltzen da behaketan eta logikan oinarrituta.

### **METODO ZIENTIFIKOAREN EZAUGARRIAK:**

Enpirikoa da: ebidentzia enpirikoak oinarritzen da eta ez ikertzailearen ustetan.

Saiatzen da objektiboa izaten: ikertzailearen subjektibotasuna gainditzeko saiaketen da. Behatutako errealitatea ikertzaile ezberdinentzat berdina izan behar du.


Egiaztatu eta errepikatu ahal da

Ez da hutsezina: ikerketa guztiek errore eta mugak dituzte, hau da, ez da perfektua.

Metatu ahal da: aurretik egindako ikerketa batean oinarritu eta geroagoentzat oinarri izan daiteke eta izango da.

Publikoa da: komunikatzea posible izan behar da ondorioak nondik atera diren egiaztatzeko.

### **METODO ZIENTIFIKOAN OINARRITUTAKO IKERKETAK ESHEMA HAU DAUKATE:**



**METODO POSITIBISTA:** ez da bakarra eta ez da aplikagarria zientzia guztietan.

### **GIZARTE ZIENTZIAK:**

Gizakien arteko jarduera eta elkarrekintzen ikasketa eta azterketa da.

## GIZARTE ZIENTZIAK: LAN HARREMANAK

Iharduera Laboral eta han gertatzen diren ekintzak subjektuen artean ikertzean datza. Ikerketa jardueraren funtzioak 2 mailatan edo 3etan bereizi daitezke:

2 mailatan

-Barrukoa

-Enpresa gainekoa(Supraenpresariala)


3 mailatan

- Langileen departamentua


- Kotsultorea

- Gizarte erakundeetako teknikaria

## IKERKETA PROZESUAREN ONARRIZKO ETAPAK:




## IKERKETA PROZESUAREN ZEHAZTAPENAK



Ikerketa proiektua, ikerketaren prozesua eta ikerketaren idazketa terminoak ez dira berdinak. Aldi guztien arteko lotura estua da aldi batek hurrengoa baldintzatzen duelako eta aldiak elkarren menpekoak direlako. Txostena ekoizpen mota bat baino ez da

## NOLA PLANEATU IKERKETA BAT?



#### 1- IKERKETA GALDERA:

Gaia zein izango den erabakitzeko aurretiko esperientzietan oinarri gaitzke, literatura zientifikoa, kongresuak, konferentziak... Hau betetzeko datu sekundarioak erabili daitezke adibidez datu-baseak eta lana betetzeko gaiarekin informatutako informazioa lortu behar da. Gaia ere eguneroko bizitzan sortutako arazoak izan daitezke edo gaia enkarguz egin beharrekoa izan daiteke. Ikerketa gaia zehazteko galdera forman planteatzen da eta galdera baten egokitasuna baloratzeko pauta batzuk hartu behar ditugu kontuan.

#### 2- BILAKETA BIBLIOGRAFIKOA:

Gaiaren sarrera teorikoa egiten laguntzen gaitu, arazo eta galderen justifikazioa egiten eta helburuak eta hipotesian zehazten. Bilaketarekin gai honi buruz egin diren ikerketa erantzun behar diogu, eta honetan aparte ikerketa horiek zein motetakoak ziren, gai horri buruzko ekarpen inportanteak zeintzuk diren eta zer informazio gabezia dagoen ikerketa horietan aztertu beharko dugu. Bilaketa bibliografiko hau egiteko datu base bibliografikoak, Internet eta liburutegi espezializatuak erabili beharko ditugu.

#### 3- GALDERA ZEHAZTU

Ikerketa galderaren birplanteamendua egin behar da bilaketa bibliografikoaren ostean era zehatz eta ikergarri batean planteatua dagoen ikusteko, aurkitutako informazioa galderari erantzuna emateko balio duen ikusteko eta gai garrantzitsua den ala ez ikusteko. Galderaren birplanteamenduan NON, NOIZ eta NOR elementuak egon behar dute barne.

#### 4- HELBURUAK

Ikertu nahi diogunari buruzko baieztapenak dira, zehaztasunez definitu behar dira ideia bakarra izateko bakoitzari buruz, baieztapen moduan planteatu behar dira infinitibo erabiliz, bigarren mailako helburu guztiak lehengo horretatik etorri behar dira helburu nagusiaren espezifikazioak direlako eta non noiz eta nor elementuak helburu nagusian egon behar dute.

## 5- IKERKETA METODOLOGIKOA ETA TEKNIKAK

Bi ikuspegi metodologiko ezberdinez hitz egin dezakegu, lehenengoa ikuspegi kuantitatiboa (distributiboa) eta bigarrena ikuspegi kualitatiboa (estrukturala-dialektikoa). Bi ikuspegiak marko filosofiko eta metodologiko zehatzak islatzen dituzte gizarte errealitatea ikertzeko.

PARADIGMA/METODOLOGIA Kuantitatiboa	PARADIGMA/METODOLOGIA Kualitatiboa
<ul style="list-style-type: none"><li>■ Errealitate “<b>objektiboa</b>” neurtu, erlazionatu, <b>kausalitatea ezarri</b>, azaldu, <b>emaitzak orokortu</b></li><li>■ <b>Egituratua eta sistematikoa</b></li><li>■ Oinarri <b>estatistikoa</b> (errepresentazio estatistikoa bilatzen du)</li><li>■ Fenomenoen <b>erregulartasuna</b> ezagutu</li><li>■ Azaleko <b>analisi (superfiziala)</b>.</li><li>■ Hipotesien <b>konfirmatzea</b></li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>■ Errealitate «<b>sinbolikoa</b>» (errepresentazioak, esanahiak etab.) ulertu, deskribatu, <b>subjektuen ikuspuntutik</b> sakonki aztertuz</li><li>■ Beharrez izan behar du <b>malgua</b>, ez egitura sistematikoa</li><li>■ <b>Diskurtso eta lengoia</b> idatzi eta ez idatziaren analisis oinarria</li><li>■ <b>Analisi sakona</b>, deskubrimendua.</li><li>■ <b>Diskurtsoa aztertu</b></li><li>■ Ez dago hipotesiak konprobatzera zuzendua</li></ul>

Gizartea multidimentsionala da, zabala eta agortezina, beraz, gizarte ikerketan perspektiba bien osagarritasuna hobesten da, pluralismo kognitibo eta metodologikoa.

Metodologia aukeratzeko garrantzitsuena ikerketa galdera da eta ikerketa arlo bat metodologia ezberdinekin erantzun daiteke. Helburu konkretu bat metodologia ezberdinetatik aboradzea beharrezkoa izan daiteke batzuetan.

IKERKETA TEKNIKA Kuantitatiboak: inkestak, erregistroen analisiak, publikatuak dauden estatistiken erabilera, datu kuantitatiboak

IKERKETA TEKNIKA Kualitatiboak: elkarrizketa sakona, talde eztabaidak, bizitza istorioak, behaketa (ez) parte hartzailea.

## 6- HIPOTESIAK

Gure galderari buruzko lehen suposizioak dira eta teoria eta errealitate enpirikoaren arteko zubia da. Ezagutza torikotik abiatzen dira eta jaso behar diren datuei buruzko orientazioa ematen dute. Zehatzak izan behar dira eta ikerketaren helburuekin egon behar dira erlazionatuak, bi aldagaien arteko erlazioa neurtzen dute.

